

# Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen testuak

FRANTZISKO ONDARRA\*

## 0. SARRERA

Lakoizketaren bi testu ematen ditugu argitara beste lan batean<sup>1</sup>. Haiek bezala oraingo hauek ere erlijio agiriak dira, predikuak baitira, eta hauek ere Bidasoa aldeko euskaraz idatziak daude.

### 1. *Testuen deskribapena*

Lau dira oraingo testuak, lehenbiziko biek launa orrialde dituztela, sei hirugarrenak eta bost laugarrenak. Bigarrena bereiz dago, besteak batean hari zuriz josirik daudela. Orriak 210 mm. luze eta c. 155 zabal dira. Ikusten dugun ur marka Brun da.

### 2. *Nor, non eta noiz*

Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen, beraren idazkera baita 1. testuaren hasieran ageri diren erdal hitzek erakusten dutena: *Tres platicas* etab. Agian Donamarian edo Erratzun izan ziren konposatuak, baina ez gara ausartzen besterik esatera. Esan genezakeen gauza bakarra da, gure ustez, predikuen egilea Lakoizketa, botanikoaren osabaren garai berekoa zela, dabilen grafia 19. mendekoa baita.

\* Euskaltzaindia.

1. Eskerrak eman behar dizkiegu Miguel Sánchez Ostiz eta Eduardo Gil Bera nafar idazle guztiz ezagunei, testu hauek, beste zenbait testurekin batean, gure eskuetara ekarri dituztelako.

### 3. Hizkuntzaren inguruan

#### Grafia eta fonetika

*Grafia.* Beti “Cristo”, ez “*Christo*” idazten du; ia beti *tc + e*, baina *tz + i* ageri da; beti 19. mendeko *r* kontsonantea.

*Fonetika.* Maiz samar *a* dugu, *e* espero denean: “*dazaten*”, “*gastacariyac*”, “*andiyana*”, “*gorputzaco*”. Hiatoa hausten da beti edo ia beti, adibide hauek erakusten dituzten kasuen antzekoetan; “*gañian*”, “*onduan*”, “*biyaltcen*”, “*santuba*”. Hitz barruko *-nd-* multzoa *-ny-*<sup>2</sup> bihurtzen da, ezkerrean *i* bokala duenean: “*inyarrak*” 1,2, “*aguinyu*” 3,4 eta “*aguiñyu*” (sic *-ñ-*) 3,5, “*yaquinyu*” 4,2. Maiz hitz barruan *-baina ik.* hitz bukaeran ere “*zatt*” 4,3 eta “*batt*” 4,4- fenomeno hau ikusten da<sup>3</sup>: *-tt-* bikoitza *t* bustia adierazteko, hala nola, “*escattu*” 1,1, “*egotten*” 1,1, “*battan*” 1,2. Hitz bukaeran *au* diptongoa *-ab* bilakaturik dugu: “*Cristab*” onen” 1,1,2, “*Cristab* batec” 3,5 -ik. ere “*Cristabac*” 2,3-.

#### Morfologia eta sintaxia

*Morfologia.* Deklinabidean hauek ditugu: ergatibo plurala *-ak* da; genitibo plurala behin “*mortalaquiña*” 3,1 -ik. ere “*oquin*” ‘hauen’ 2,2-; inesiboa pertsonetan *battan*; destinatiboa eta prolatiboa *-tzat*: “*dutenantzat*” 1,1, eta “*tipitzat*” 4,4; ablatibo plurala *-tarik*: “*danzataric*” 2,4, “*lagun gaistuataric*” 2,4.

Erakusle hauek hartu ditugu: *hau*, *hunek/honek* (behin), *hunetan/honetan/hontan* (behin), *hunen*, *bok*, *okiñ* ‘hauen’ eta ‘hauekin’; *hori*, *horrekiñ*, *horiyek*; *hura*, *hark*, *bartan*, *baren*, *hek*, *bekiñ* ‘haien’, *beben* ‘beren’. Ik. ere *eurek* ‘ipsi’.

Izenordain pertsonalak: *ni*, *nere* (bokat.); *gu*, *gure*; *zu*, *zutaz*, *zure*, *zere*; *zubek*, *zuben*, *zeben*.

*Sintaxia.* Genitiboa objektuaren ordeztu gutxienetan gertatzen da. Erakusleekin egitura hau<sup>4</sup> sortzen da beti: “*destierrua unetan*” 1,1, “*amoriyua arc* 2,3, “*Deomoniua eurec*” 3,5. Ageri da bai eta ere askotan, agian gehienetan, *aditz*

2. Guk argitaratu ditugun testuetan ez dugu maiz aurkitu fenomeno hau. Egia esan behar baldin badugu, Fr. Juan de Bera, fraide kaputxinoarenetan bakarrik ikusi dugu. Eta honek era ez du beti erabiltzen, baizik eta bere herrian eta ingurukoetan eman zituenean, hots, Etxalar, Oiartzun, Irun eta Hendaian, ez ordea Arizkunetan eta Uztaritzen bota zituenean. Aipatu ditugun leku horietan emandako hitzaldiak 1831 eta 1860 urteen artean izan ziren botaak. Ik. 3 eta 4. oharra.

3. Goiko oharrean aitatu autoreak ere erabiltzen du *-tt-* bikoitza, baina bakarrik *i* bokala dagoenean ezkerreko aldean.

4. Egitura hau ez da oso ezaguna. Egia esan behar baldin badugu, Berako kaputxinoaren idatzietan ezik ez dugu aurkitu. Eta 2. oharrean esandakoa errepikatuz, hau ere goian izendaturako lekuetan emandako predikuetan bakarrik. Zilegi bekigu pentsatzea, beste arrazoirik ere badago-eta, orain argitaratzen ditugun lekuko egilea Bidasoa beheko herriren batean jaioa izan zela.

*nagusia + ez + aditz laguntzailea* egitura <sup>5</sup>: *obedecittuco eztubena?* 3,5, *deseyatcen eztubela* 2,4, *izandu ezpanu* 1,3.

## Hiztegia eta adizkitegia

*Hiztegia*. Zenbait hitz ikusgarri ematen ditugu: *Adiskedel-kide*, *aitzin*, *as-nasi* 'arnasa', *asasiyatu*, *ateri*, *bazala*, *berez* 'beraz', *berila*, *bertze*, *bida*, *biño*, *bizik* 'besterik', *emakome*, *enfadatu* 'aspertu', *enoiatu* 'nekatu', *erabera*, *eramen*, *gastakari*, *gego*, *irutan ogei*, *Jangoiko*, *kristab*, *ogi* 'gari', *ordikari*, *porrakatu*, *txikatu*, *zertik* 'zergatik', *zugi* 'zubi'.

*Adizkitegia*. Adizki hauek nahi ditugu plazaratu: *bailu* (bezala), *detzazuben* (beti *-ube-* eta *-ube*), *dezatzan* 'zaitzan', *dietzagun*, *tiozube*, *tu*, *zaninduzteden* 'zintuztedan', *zidazu*, *ziozube*, *zition*.

## 4. Gure lana

Testuen ordena guk antolatua izan da, gaiak hori eskatzen duelako, garbi ikusten denez 2. testuaren lehenbiziko lerroetan, besteak beste. Orrialdeetako zenbakiak ere guk ipiniak dira, zenbatu gabe zeudelarik. Grafema larri-xeheen arteko auzia honela erabaki dugu: larria erabiliz *Yende*, *Juez*, *Justu* -baina "yustuba", xehea eta yod-, *Ceru*. Zuzendu eta zuzenketaren berri orrialde beko oharretan eman, ahalik eta gutxiena egin dugu, egilearen dialektalismo edo idazteko modua izan litekeelako. *Hiztegian* eta *Adizkitegian* ez ditugu hitz eta adizki denak sartzen.

Lehenengo testuko estalkiko erdal paragrafoa 1. orrialdeko 1. paragrafoa bezala jotzen dugu aipamen edo adibideetan. Beraz, orrialde horretako 1. paragrafoa 2. paragrafotzat jotzen dugu.

Laburdurak: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, d. determinatzailea, i. izena, ik. ikus, io. izenordaina, j. juntagailua, p. posposizioa.

## 1. TESTUA

Tres<sup>6</sup> platicas doctrinales: una sobre la peticion segunda; otra sobre la quinta, y otra sobre la septima del padre nuestro.

Arrazoi andiyarequiñ escatcen diogu<sup>7</sup> Jangoicuari bere Erreinua, Aita gu-riaren bigarren escariyuan, lembicicuan escattu onduan, aren izen santubaren honra, ta gloriya. Escatcen diogu bere Erreinua guretzat, eta aimbertce gure gusturaco, nola bedecatceco, alabatzeco, ta honratzeco Jangoicua, eta unen izen santuba an bere Erreinuian, santu guciyen compañian egotten garenian ya que emen destierrua unetan eziñ ongui eguiñ dezaquegun ezquero. Errei-

5. Ik. fenomeno honi buruz J. A. LAKARRA. "Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean". *ASJU*, XX-3 (1986), 639-681 (Ik. 655. or.).

6. Hiru platika hauek gure lanean 1, 3 eta 4.a dira, 2. platika bezala ematen dugula beste horiekin ez dagoena josirik, baina, gaia hartzen dugula kontuan, leku hori dagokiona.

7. Eskuidatzian (E) "digu". Ik. 16. oharra.

nua izanditteque gracyarena, eta Gloriyarena, Gracyarena da Erreinua ura, zeñequiñ Jangoicuac governatzen tu bere adisquedien eta Cristab onen Arimac, biyaltcen tiola<sup>8</sup> laguntzac, eta gracia ezaudazaten<sup>9</sup>, matta dezaten, eta serbi dezaten, gauza guciyen gañatic. Erreinua au, gure barrenian dago, baldiñ Jangoicuaren gracyan baldiñ bagaude, S<sup>n</sup>.Lucasec diyon bazala<sup>10</sup>: Eta guardattu, eta defendittu biar dugu gure etsayataric<sup>11</sup>, oquiñ peliatcen garela, eta garaitcen tugula, arengatic erratten du S<sup>n</sup>. Agustifñec, Erreinua au, guerraco Erreinua dela, zeñeta<sup>12</sup> orañic etsayarequiñ peliatcen gara. Gloriyaren Erreinua da, Jangoicuac, bera mattatcen dutenentzat, eta munduba onetan servitcen dutenentzat prestatuba daducan betico zoriya ontasun eta gloriya ura. Au da Jangoicuac, bere adisquedienzat daducan Erreinua, biño gaistuac<sup>13</sup> eztute erditsico: Ez, eztu<sup>14</sup> zertan pensatu, gaistuac eztute gozatuco Jangoicuaren erreinua, diyo S<sup>n</sup>. Pauloc: *Iniqui Regnum dei non possidebunt*<sup>15</sup>. Peticiaua unetan escatcen diogu Jangoicuari, eman diezagula, ez bacarric gracyaren Erreinua, baicic, baita gloriyarenare. Escatzen diogu [2] Jangoicuari eman diezagula bere gracya; eta baldiñ gracyan baldiñ bagaude, artan guarda gaitzala, biyaltcen tigula bere laguntzac, eztezan gure battan, lecuric izan becatubac; acabatcen dugularic gure vicitza labor au Jangoicuaren adisque-detasunian; eta gracyan, eramen gaitzan, betico vicitzaren gozatcera, zeñ batta gloriyaren Erreinua. Escatcen tiogun<sup>16</sup> ezquero bada Jangoicuari gracyaren, eta gloriyaren Erreinua, minzattu nai dizubet zerbat gracyaren anditasunaren gañian. Gracyaren anditasuna da, Arimaren viciya izattia. Guc badaquigu, diyo S<sup>n</sup>. Juan Evangelistac, pasatubac izandu garela becatubaren eriyotzetic, gracyaren vicira. Denic siñaurric tipianaren viciya, perfectuagua da iguzquiyaren izayera guciya biño, certic muguitzia, sentitzia, eta ezautzia dire viciyaren obrac, eta obra oc chicatcen tuzte, bertce Arimaric, edo viciric eztuten gauza guciyec; eta comparatcen badidazube gure gorputzaren viciya zeñ batta Arima, chicatcen du bere nobletasunian, perfeccionian, eta edertasunian munduba au guciya. Bada gure gorputzaren vici naturaleza au, aiñ ederra baldiñ bada, nolacua izanenda gure Arimaren viciya, zeñ batta gracya bera? Gracyac eguitten tu Ariman, bere erabera<sup>17</sup>, Arimac gorputzan eguitten tuben oficiuac. Arimac eguitten tu, gorputzan ardezan alimentuba, andi dadiyen eta len galdutuben inyarrac, itzul daquizquiyon arequin; Gracyac eguitten tu, Arima alimenta dadiyen Jangoicuaren itzaren oguiyarequiñ, libru devotuac leitziarequiñ, eta sacramentubac erreivitziarequiñ: Gracyac eguitten du, oraciuaeren, eta mortificaciuaeren mediyoz, Arimac [3] erdis detzan, bere apetittuben berotasunarequiñ galdu zittuben virtutiac. Arimac

8. Espero dena "tiela" da.
9. Espero dena "-dezaten" da, bi eta bost hitz aurrerago dioen bezala.
10. Horrela erabili ohi du, "bezala"ren orde.
11. Espero dena "etsayataric" da.
12. Espero dena "zeñetan" da.
13. E "gaistua", bukaerako -c gabe.
14. Espero dena "eztute" edo da.
15. E "posidebunt".
16. E "tiogun". Ik. 7. oharra.
17. Horrela erabili ohi du, "arabera"ren orde.

eguitten du, gorputza mugui dadiyen, asnasi ar dezan, mintza dadiyen icus dezan, eta adidezan; Graciyac eguitten du, Arimac asnasi ardezala Jangoicua-rengana, mugui dadiyela becatuben urriquimentu, eta penitenciara, icus detzala becatuben peligruc, eta ocasuac, ardetzala bere utsen miachubac, eta consejubac. Ondarrian, nola Arimac gorputzaren barrenian ezautcen duben, nai duben, eta deseyatcen duben, ala graciyac eguitten du Arimac billa datzala, eta ezaudatzala bere concinciyaco zocuac, entendi datzala eguiyac, salvaciua deseya dezala eta aplica dadiyela virtutia seguitcera: Biño falta daquiyola gorputzari Arima, berila icusco duzube itsustuba, coloreric<sup>18</sup> gabe, eta egun<sup>19</sup> guttiren barrenian bustelduba; falta daquiyola bada Arimari graciyaren viciya, berila guelditcen da gorputz ill bat biño itsusiyagua, eta bustelagua. Graciyac ematten zittion inyarrac Martir santubei; Garvitasuna Virginia, edo Doncellei, eta Apostolubei, izandu zuten ontasun guciya, bere buruba gatic S<sup>n</sup>. Pauloc confesatcen zuben bazala; Jangoicuaren gracia gatic naiz, naizena. Erratten bailu bazala, baldiñ Jangoicuaren autatuba baldiñ banaiz, aren izen santuba yendieie erametteco, Jangoicuaren gracia gatic naiz: Apostoluba baldiñ banaiz, Jangoicuaren gracia gatic naiz: Bertce guciyec biño guego necatu baldiñ banaiz, Yendien convertitcen, Jangoicuaren graciyarequiñ eguiñ dut: *Gratia Dei sum id quod sum*. Jangoicuaren gracia izandu ezpanu, izanen nintcen Cristoren Etsai declarattu bat, eta Cristaben perseguitzelleric andiyana, graciyaric esnubenian izandu nintcen [4] bazala: Au erraten zuben S<sup>n</sup>. Pauloc bere buruba gatic. ¿Eta zer erranen dugu zutaz, aditcen nauzun Guizon, edo Emacomia? Jangoicuaren gracia baldiñ bazaude, erranen dugu, eta arrazoyarequiñ, munduco Emperadore, eta Erregue[ac]<sup>20</sup> biño Aberatsagua<sup>21</sup>, zarela, naiz eztezazula izan yateco Arto pusca bat bicic. Erranen dugu, illarguiya iguzquiya, eta izarrac biño ederragua dela zure Arima, na[iz] zure gorputza munduban den itsusiyana izana gatic. Erranen dugu, Jangoicuaren hume mattia zarela, Jesucristoren aurridia, Aingueruben laguna, eta Espiritu Santubaren Esposa. Biño becatu mortalian baldiñ bazaude, beldur naizen bazala, baldiñ graciyaren Duai estimagarriya, galdu baldiñ bazu, zere Juramentu, eta maldiciuaquiñ, ordicariyaquiñ, sal erosiyetan eguitten tuzun malicia, ta trampaquiñ, Amarranac, eta Primitziyac ez eguitiarequiñ, edo escas eguitiarequiñ, becatubac alquez, ez confesatziarequiñ; ¿cer naizu erran dezagun zutaz? Erranen dugu Demoniu bera biño gaistua-gu, eta itsusiyago eguiñ zarela: obe zanubela ez yayo izattera, bada aiñ contu gaistua emattenduzu zure Arimaz. ¡O aditcen nauzun Arima! Beguiria ziozu cuidaduaquiñ zere burubari, eta causittuco duzu, zure Arimac mundu guciyac biño guego valiyo dubela, eta graciyac baliyo dubela zure Arimac biño aguitz guego. ¿Eta izanenda zuben artian ñior, despreciatuco dubenic, ontasun bat añ andiya? Izanenda bere ichetic botatuco dubenic gracia au? Izanenda billatuco<sup>22</sup> naico eztubenic, galdu baldiñ badu, garvitcen dubela bere

18. E "coleric".

19. E. "eguiñ".

20. Fotokopian ezta ikusten -ac.

21. E "Aberatsuagua".

22. Agian *billatu* espero da, bukaerako - co gabe.

concinciyaren ichia confesio, on baten mediyoz? Ya bada nere Cristabac, idequi zube zuben Arimaco beguiyac, gracyaren anditasuna ezautzeco, esca ziozube [5] Jangoicuari biyotzeco suspiro, ta nigarraquiñ, bada logratcen baldin<sup>23</sup> baduzube, erditsicoduzube arequiñ Jangoicuari bigarren peticiuan escatcen diozuben Erreinua.

## 2. TESTUA

Azqueneco aldian erran nizuben zerbat gracyaren Erreinuaren gañian, gaur mintzattu nai dizubet Gloriyaren Erreinuaren gañian, bada bi erreinua oc, escatcen tiogu Jangoicuari, erratten diogunian<sup>24</sup>, etor bequigu zure Erreinua. ¿Biño norc esplica dezaque, Jangoicuac munduba unetan ura servitcen, eta mattatcen dutenezat prestatuba daducan, gloriyaren parte pusca batere? ¿Noren mingañac esplica detzaque, eta noren entendimentubac compendi detzaque, Bienaventuratubac gozatcen tuzten gustubac, eben burubac icusten tuztenian, Aingueruben coruben<sup>25</sup> artian, eta Jangoicuaren beraren presenciyan, bera aguertcen zayola, an den bazala, bere podore, ontasun, yaquinduriya, eta edertasun guciyarequin? Baldiñ S<sup>n</sup>. Agustañec erratten baldiñ badu, alaba dittequiela, biño eziñ esplica dittequiela, Jangoicuac bere adisquidiei ceruban ematten dion gloriya ura, nola pretendittu, eta pensatu biar dut nic esplicatzia gloriya ura, eta Jangoicuarenganic esperatcen<sup>26</sup> dugun eta emen escatcen diogun Erreino<sup>27</sup> andiya ura? Biño alere bere anditasunaren mediyoz eziñ esplica dittequiena izanagatic erranen dizubet zerbat, aldudan moduban. Bienaventuranza, edo Gloriya da, estadu perfecto bat, ontasun guciyec berequiñ encerratcen tubena. Bienaventuratuba, edo zoriyonezcua, da, dubena nai duben guciya, eta ona ezten gauzaric nai eztubena. Bienaventuranza da gauza bat, zeñetan ezta causitcen niorc nai eztubenic, eta causitcen da batec nai duben guciya. Ceruban causitcen da, batec deseya aldezaquien guciya. An egon biar dute gure Arimac, eta gorputzac, eben virtutien sariyaren errecivitcen, eta gorputzaren miembro guciyec ere, izanen dute, eben gustu, ta atseguñ particularra. ¡O Jangoicua baliya daquidala, ta cer gloriyaren anditasuna! Munduba onetan zarratu ziren beguiyac, ez icustia gatic deseyatzia zillegui etzena. Munduba onetan apartatu ziren [2] beguiyac, danza, eta bertce yosteta, peligrosuac, ez icustia gatic. Munduba onetan idequi ziren beguiyac, pobrien necesidadiac icusteco, eta socorritzeco, an izanen dute<sup>28</sup> gustu, ta atseguñ particular bat, ciudade ederra ura, icustiarequiñ, bere Palaciuquiñ, Santubac eta Ainguerubac, iguzquiyac biño guego arguitcen du-

23. Hemen "baldin", -ñ erabili ohi duela.

24. E "digunian".

25. E "ceruben".

26. Lehenbizi "esplicattu biar dugun", gero lerro artean *esperatcen* ipini du *esplicattu* gainean eta eztu ezabatu *biar*.

27. Horrela: "Erreino".

28. E "duten".

tela. Baldiñ Daniel, eta S<sup>n</sup>. Juan eben battatic ateri baziren, edo soratubac<sup>29</sup>, gueldittu baciren, Ainguerubat, bacarra, icustiarequiñ, ¿cer izanen da aimbertce milla Aingueru icustia? Eta zer izanenda icustia, ez bacarric Aiñguerubac, baicic Cerubataco Princesa, Aingueruben Erreguiña, eta Jangoicuaren beraren Ama María Santísima? ¿Arrittu ziren Olofnesen Soldadubac, Juditen edertasuna, icusi zutenian, zembat diferenciya dua bada María santísimaren edertasunatic, Juditen edertasunara? Baldiñ S<sup>n</sup>. Dionisioc María santísima icusi zubenian orañic gloriyaric etzuben demboran, errecivittu bazion S<sup>n</sup>. Paulori Jerusalendic, baldiñ fediac debecatcen ezpazion Jangoico eguiyazcotzat iduquico<sup>30</sup> zubela, zer izanen da, ceruban gloriyaz betia icusten dugunian? An aguertuco da, deus eztela munduba ontan aren edertasunaz mintzattu, eta pensatu zen guciya. ¿Zer erranen dugu bada Jesu Cristo gure Redentoriaren gorputz gloriyosua ura icustiaz? Baldiñ unen gorputzaco gloriyaren parte pusca bat icustiac aimbertce gustu eman bacion Taborco mendian iru discipulubei, ezen idurittu zatzayon S<sup>n</sup>. Pedrori bertce gauzaric eziñ deseya zittequiela, ¿cer gustuba izanen da ceruban icustia gorputz gloriyosua ura guciya? Job santuba consolatcen baldiñ bacen, gorputza unen icusteco, esperanza berarequiñ, zer consuelua, emanen du gorputza unen gozatziac? Munduba onetan Jangoicuaren itza humildadiarequiñ adittu zuten biarriyac, confesoriaren consejubac<sup>31</sup>, eta pobrien nigarrac, oquiñ socorritceco; Adittu nai eztuztenac lagun progimuaren murmuraciuc, eta ez itz, edo canta desonestuac, an egonen dire gustuz, eta atseguinaz betiac, aditcen tuztela ango Musica, eta voza suavia ec, zeñec cantatuco tuzte Jangoicuaren alabanzac, Jesucristoren, María Santísimaren, eta santuben [3] milagrubac; Au izanenda Ceruban egonen direnen oficiua, eta empleguba: biño beñere acabattu gabe, enoyatu gabe, eta enfadatu gabe. ¿Cer gustuba izanen da bada, nere Cristabac ceruco coruba equiñ aditzia? Beguiyac, eta biarriyac bazala, izanen tuzte gorputzaco bertce sentido guciyec ere eben gustubac; eta zembatere munduba onetan guego mortificattu zittuben batec bere sentiduac, becatutic guardatceco, eta bere pasionien garaitceco, orduban izanendu ceruban gustu guego. ¿Uste duzube orañ, unequiñ aditcera eman dizubedala zerden gloriya? Bada, gorputzaren, eta unen sentiduen atseguinā, añ andiya izana gatic ceruban, comparacioric gabe andiyagua da Ariman, eta Arimaren potenciesac izanen dutena. Memoriyac emanen dio consuelo andi bat Arimari, oriotziarequin Jangoicuac munduba unetan eguiñ zition favoriac, gorputzaco, ta Arimaco duayaz, zenequiñ prestatu, eta disponittu zuben Jangoicuaren providenciac, gloriya bat añ andiya erdisteco. Entendimentuba egonen da yaquinduriyaz betia, zertic arguituric gloriyaren arguitasunarequiñ, claroqui icusco du Jangoicua, eta Jangoicuaren battan, ispillu eder batian bezala, icusco tu gauza guciyec, eta ezauttuco du gauza guciyen izayera. Vorondatia egonen da amoriyoz betia, eta amoriyua unequiñ mattatcen dute elcar Bienaventuratubac, eben burubac bazala, eta guciyec mattatcen dute, Jangoicua eben burubac

29. Espero dena "zoratubac" da.

30. E "iduquico".

31. E "confesuban".

biño guego. ¿Norc esplicattuco tu bada oraiñ, Arima batec izanen tuben gustubac<sup>32</sup>, bere potenciya guciyec emplegatubac daduzquiyenian, Jangoicuaz, eta Jangoicuarenganic errecivittu tuben faboriaz oroitcen, eta unen ezautcen, eta cara, cara unen icusten, eta gauza guciyen gañian unen mattatcen? ¿Norc explica dezaque ceruco amoriyua arc ematten duben gustuba, bada zertic guciyentzat comuna den, guciyentzat da bat, eta guciyen atseguñaz, artcen du bacotchac, guciyec berac gozatcen balittu adña atseguin? ¿Cer gustuba izanenda, icustia eziñ conta dittezquien Martiren tropa ura? ¿Zer izanenda icustia elcarrequiñ ameca milla, Doncella ec, Aingueruben [4] artian cantatcen<sup>33</sup> tioztela Jangoicuari milla alabanza, zertic eman zitiyon inyarrac araguiyaren tentaciuen garaitceco? Zer izanenda icustia aimbertce santu, Aiñguerubequiñ aldizca cantatcen<sup>34</sup> tioztela milla laudariyo gloriyaren Erreguiari? Bada baldiñ Bienaventuratu bacochac, izanen baldiñ battu bertce guciyec tuzten gustu, ta atseguñac, bada berequiñ eztubena, izanen du bertcietan; zer seguitcen da emendic, baicic Bienaventuratu bacochac<sup>35</sup> gustuban<sup>36</sup> izanen direla casic ezin conta ala, zertic Bienaventuratubac dire casic ezin conta ala? An icusco dugu Jangoicua bera den bazala. An descansatuco da gure entendimentuba, guego yaquittia deseyatcen eztubela, zertic bere aitzinian izanendu yaquiñ dittequien guciya. An descansatuco da gure vorondatia mattatcen dubela Jangoicua, zeñetan encerratcen dire ontasun guciyec. An icusco dugu, mattatuco dugu, eta gozatuco dugu fiñic gabe; egonen gara guztiz<sup>37</sup> asasiyatubac enfadatu gabe, eta gosetubac necesidaderic gabe. ¿Yauna, ta nola erdit-sico dugu gloriya ori? Ah nere Cristabac, ezta erdit-sico, eta erdis ditteque gloriya gloriyaren vidia eramenez vicic: Gloriyara yuateco despreciatu biar dugu munduba bere gustu, eta atsegin guciyequiñ: iguesi eguin biar dugu lagun gaistuataric; yoco, ta danzataric, itz batian erratceco, Jangoicuaren legue santuba ongui guardatu biar dugu cerura, yuateco. ¿Nor ezta bada animatuco consuelua<sup>38</sup> au izattia gatic? Ea bada ceruraco criyatuba zara, eta unec eramem biar dizu<sup>39</sup> atenciyo guciya: eztezazula bada guego ofendittu zure Criadoria, eztezazula guego luzatu zure becatubaz penitenciya eguittia, orrequiñ seguratcen duzu betico gloriya.

### 3. TESTUA

¿Cer da bosgarren peticiua? Barcaitzac eguizu<sup>40</sup> gure zorrac, guc ere barcatcen tiyegun bezala gure zordunei. ¿Cer escatcen diogu bosgarren peticiua

32. E "gustuban".

33. E ez dio "cantatcen" eta ez dakigu zer dioen, baina hori espero da.

34. E "contatcen".

35. E "bacobac".

36. Espero dena "bacocharen gustubac" edo da.

37. E "guztuz".

38. E "consuela".

39. E "duzu".

40. Espero dena *barca ietzaguzu* edo da, batuan "barca iezazkiguzu". Ik. "barca dietzagula" 'diezazkigula' 3,1.



unetan? Barca dietzagula gure zorrac. ¿Cer dire gure zorrac? Becatubac, eta becatubac gatic merecittu tugun penac. Deitzen zayo becatubari zorra, zertic eguitten garen Jangoicuaren justiciyari zordun. Eben battan becuric<sup>41</sup> ezautcen eztutenac eztaude libre escariyua unetaric, zertic ezta orobat ez becuric ezautzia, nola ez izattia, eta Jangoicua da, gu yuzcatu biar gattubena: baitare zertic badire becatu gordiac, eta yustubare erortcen da anitz aldiz egunian. Guego, zertic erratten badugu becuric eztugula, guezurra, erratten dugu, diyo S<sup>o</sup>. Juanec. Baitare zertic eztugu escatcen bacarric becatubaren barcaciua, baicic baita penarenare: Eta escatcen ere diogu barcaciua, ez bacarric guretzat, baicic baita gure lagun progimuenzat ere. Aita guria errattiarequiñ erdisten da becatuben barcaciua? Becatu venialena bai, errezatcen baldiñ bada, etaz damu dubela, biño mortalaquiña ezta erdisten, baicic dispoñitcen da erdisteco, biar den bazala erratten baldiñ bada. Guero erratten dugu, guc ere barcatcen tiogun<sup>42</sup> bazala gure zordunei. Jangoicua mugui erazteco barca dietzagula, unetaraco presente eguitten diogula<sup>43</sup>, guc barcatcen tiogula gure lagun progimuei: baitare aditcera ematteco, bere lagun progimuari barcatcen etziyonari, etziyola Jangoicuac barcattuco: ¿Eta zer barcatu biar diogu gure lagun progimuei? [2] Barcattu biar tiogu, eguiñ tizutzen agraviyuac, et[la] ofensac; eta au ez bacarric itzaz, baicic biyotz gucial[z.] Jangoicuaren leguia da, nere Cristabac, matta dittezela E[t]sayac. Anitz motivo paratcen tuzte santubac gur[i] aditcera ematteco nola cumpli dezaquegun leguia unequiñ: biño nic utziric bertce motivo, ta arrazoi guciyec, eztizubet bertce motiburic eman nai, zeven Etsayei barcatzeco, baicic zertic Jangoicuac aguintcen dubena<sup>44</sup>. *Ego autem dico vobis*. Nic, diyo Cristo gure yaunac, nic zeñ banaiz<sup>45</sup> Aitaren yaquinduriya: Nic ezin engana<sup>46</sup> nittequiena, eta eziñ engana dezaquedana: Nic, zuben Burasua, zuben Adisquidia, zuben Redentoria, eta Salvadoria. Nic zuben Maestrubac, beti zuben Arimenzat dotrina onac eracusten tudana: Nic, zuben becatubac gatic Gurutze<sup>47</sup> batian nagona, nic zuben gatic nere viciya eman nubena: Nic nere odola costaric<sup>48</sup> Demoniuaeren escutic ateri zaninduztedena<sup>49</sup>. Eta ondarran nic, zuben Jueza, obedicitcen banauzube, Ceruba emanen dizubedana, eta nere aguintzac<sup>50</sup> desprecyatcen battuzube, infernura botatuco zattuztedana; Nic erratten dizubet, nic aguintcen dizubet matta detzazubela zeven Etsayac, anztera utzi detzazubela eguiñ tizuben agraviyuac, barca diotzazubela eguiñ tizuben ofensac: ongui eguiñ diezazubela, zube aborrecitcen zattuztenei: oracio eguiñ diezazubela zube perseguitcen zattuztenenzat, eta falso testimoniua alchatcen di-

41. E "becatur*i*", bukaerako -c gabe.

42. Goian "tiyegun" ipini du. Berriz ere "tiogula", "tiogu" eta "diogu" pixka bat behe-  
rago.

43. E "digula".

44. Agian "duben" espero da.

45. Uste dugu "bainaz" espero dela.

46. Espero dena "engaña" da.

47. E "Guretze".

48. E "costaric".

49. Lerro artean sartua dago "-de-".

50. E "aguintzai".

zubenenzat. Nic aguintcen<sup>51</sup> dut, erratten du Cristoc. Eta izanenda errenditucio eztenic yauna onec aguintcen dubenara? Izanenda bere biyotzian erranen dubenic, nai badu Cristoc aguindazala, eztiot nic barcatu nai? Ea vengatibua, baduzu zer erran [3] zure Jangoicuac berac, aguintcen dizunaren contra? Causitcen duzu motivoric ez obedecitzeco aimbertce arrazoireq[ui]n aguintcen dizun<sup>52</sup> Yauna au? Ojala ala ezpaliz; biño ezta maizago guertatcen den gauzaric. Zembatec erratten dute atrevimentu andiyarequiñ, gauza gogorra dela barcatzia, eta orañic eziñ eguiñ dezaquettela! Biño ó itsubac, eta orañic itsubac biño guegocuac! Gauza gogorra dela diozube barcatzia zube aurridiairi<sup>53</sup> berari zertic ofendittu zattuzten? Gauza gogorra dela diozube, eztiya biño dulciagua den legue batt? Zuc diozu gauza gogorra dela, eta eziñ barca dezaquezula, Escriturac erratten dizunian barca dezaquezula. Zuc erresponditcen duzu eziñ dezaquezula; biño nor siñetsi biardugu? ¿Zu edo Jangoicua? Biño utzi detzagun arrazoyac. Eman dezagun gauza gogorra dela zuc diyozun bazala, eta eziñ eguiñ dezaquezula: Nic aguintcen dut, diyo Jangoicuac: Eta nic aguintcen dudanian, imposible baliz ere, poderosua naiz, imposible dena ori, posible eguitteco, inyarrac ematten tudala ni obedecitzeco. ¡Zeiñ ongui entenditcen zuben S<sup>n</sup>. Leonec! Erratten zuben, iduritcen bazaitzu gaitza dela eta orañic imposiblia Jangoicuac aguintcen dubena, eztezazula<sup>54</sup> beguirattu zuri iduritcen zaitzunara, baicic zuaz aguintcen dizunarengana humildadiarequiñ, ta confianzarequiñ; bada aguintciarequiñ berarequiñ obligatu zuben bere podoria, aren cumplitcen laguntzera; ¿Cer izanentcen gauza gaitzagoric Israelco Tropic Itsasua pasatu biar izattia biño? Elduzen Faraon seguitcen ziola bere ejercitubarequiñ, ta Israelco Tropic iguesi duazen demboran, causitcen dire, Itsasuac pasatceco bidia trabatcen diola: [4] icaraten dire; eta Moises abiyatcen zayo Jangoicuari marriscas<sup>55</sup> humildade andi batequiñ, ta Jangoicuac erratten dio, Moises ¿zer dire zure oyuba oriyec? Errai<sup>56</sup> ziozu tropa oriyei du[a]zala, beguira pasatzeco, zuguiric baden, edo ezten, errai ziozu duazala, zertic nic aguintcen dudanian, imposible dela idurittuba gatic, nic eguiñen düt errazqui pasa dezatela. Eta ala cumplittu zuben. Berila Itsasuac lecu eguiñ zion pasacittezen. Beguirazu Cristaba nola Jangoicuac eguitten duben guri imposible dela iduritcen zaiguna<sup>57</sup>: berez<sup>58</sup> pensazu ya imposible izanen den barcatzia, barcatceco aguintcen duben Jangoicuac berac ematten badu gracia cumplitceco. Cristoc aguintcen dubenian obedecitcen du Demoniuac berac; bad[a] aguinyu zionian ateri zadiyela, mortificatcen zuben Guizona aren gorputzetic, obedecitcen zuben, ta berila atericen: *Et spiritus immundus*<sup>59</sup> *exiit ab eo*. diyo S<sup>n</sup>. Marcosec. Mira garriyana da S<sup>n</sup>. Lucasec

51. E "aguitcen".

52. E "dazun".

53. Horrela: "aurridiairi", baina "berari".

54. E "eztezala".

55. Agian "marriscas" izan behar luke.

56. Espero dena "erran" da.

57. E "naiguna".

58. Horrela erabili ohi du, "beraz"en ordez.

59. E "immundus".

erratten diguna[.] Biyaltcen tu Cristoc predicatcera bere Apostolu, ta discipuluac, eta erratten dio; Zuazte, eta eztezazubela beldurric izan, naiz causitzitetzela otsuen artian bildotsac bazala, eta oroi zittezte, nic biyaltcen zattuztedala. Zuazte, zertic nere izenian errendittuco duzube denic gogortasunic andiyana, sugetatuco duzube infernuba bera, eta ezta izanen Demonioric ere contra eguiñen dubenic, eta obedecittu gabe utzico dubenic nere izena, eta zuben aguintza. ¿Eta nola guertattu zatzayon? Cristoc erran zion bazala; Bada eben predicuba eguinta itzuli<sup>60</sup> zirenian irutan oguei ta amavi Discipulubac erran zioten Jesucristori. Yauna, guciya errenditcen da zure aguintzara, itsutasunac, Perlesiac, gogortasunac, eritasun genero guciya, eriyotzia, eta orañic Demoniuac eurec obedecitcen gattuzte, eta errenditcen dire zure aguintzara. Galdetcen dut orai: ¿Norc aguintcen du Etsayac mattatceco? ¿Eztu Jesucristoc aguintcen? [5] Ezta Apostolubei predicatcera yuateco aguiñyu ziona ura bera? Ezta dudaric ura bera dela. Bada baldiñ Apostolubac, zer aguintcen duten Jesusen izenian, obedecitcen battuzte Erreinuac, eritasunac, eriyotziac, eta Demoniuac eurec, certic eztu obedecittu biar Guizon pobre batec, Emacome miserable batec Jesucristo bera, aguintcen dionian bere Etsayei barca diozela, eta matta detzala. Aguintza bat aiiñ<sup>61</sup> andiyari contra eguitten diona, ezta Gentillac, eta Demoniu<sup>62</sup> eurec biño gaistuagua<sup>63</sup> izanen? Eta zeñ ongui erran zuben S<sup>a</sup>. Ambrosioc: Guizon gaistua, Diabruba bera biño gaistuagua dela: Eta naico duzu zuc, Cristoc mattadezatzan, obedecittu nai eztuzularic, zere Etsaya mattatzeco aguintcen dizunian? Ez nere Cristaba, etzattu mattatuco, eta eziiñ izan dezaquezu unionequic<sup>64</sup> Cristorequiñ, zuc ezpaduzu unioneric nai zere lagun progimuarequiñ. Biño zuc barcatcen badiozu lagun<sup>65</sup>. Adizube guego, eta icaszube Alimaliyataric, eta orañic Arimaric eztutenetaric, Cristo, ta bere Ministruen obedecitcen. Baratzai Fraile batec aguiñyu zion sugue bati baratzari contu eguiñ ziozala, eta berila suguiac obedecittu zuben. Marcelino Anconaco Obispuac aguinyu zion Jesusen izenian Ciudadia abrasatcen zuben subari, iraungui zadiyela, eta berila iraungui zen suba. ¿Nor izanenda bada ejemplua oquiñ Jesucristori contra eguiñen diona, ta obedecittuco<sup>66</sup> eztubena? Unen aguintza obedecitcen dute suguiac, subac eriyotziac, eta Demoniuac, eta eztu obedecittu biar Cristab batec bere Jangoicua, bere Maestruba, eta bere Yauna, aguintcen diona bere Etsayari barca diozala. Errendizu Cristaba cere buruba Yaun batt añ andiyaren aguintzara, obedecizu, mattazu cere Etsaya, zertic ez mattatziarequiñ zere burubari calte eguitten diozu. Berez zere caltetan baldiñ baduzu, barca ziozu, eta mattazu bederen zere onagatic, ejemplua onetan icusco duzun bazala. Madrillan [6] vicittu ziren bi Guizon asertubac, ta gorrotuban, ta anitz aldiz elcar billatcen zuten, biño etzuten arrapattu ortzegun santu Arralselde-

60. E *itzu*, bukaerako *-li* gabe.

61. E "aiiñ".

62. Horrela, eta ez "Demoniuac".

63. E "gaistoaga".

64. Agian "unionequic" (?) ere irakur liteke (?). Ik. "unioneric" lau hitz aurrerago.

65. Hitz honen ondotik zerbait falta da.

66. E "obedecitteco".

riño<sup>67</sup>: Arralsaldia unetan elcar arquittu zuten Carrica miar batian, ta ezpatac aterita abiyatu ziren<sup>68</sup> elcarren contra; batec colpattu zuben bertcia, ta botatu zuben lurrara; lurrian zagonac icusi zuben bere contrariyua bigarren golpian emattera ziguaquiyola<sup>69</sup> iltceco, ta lurrian zagonac erran zion moduba onetan: Gaur bazalaco egun batian bere odola gure gatic isuri zuben Jesucristoren amoriyua gatic arren barca zidazu: Itz oquiñ muguitturic, detenittu zen, sartu zuben Maguian bere Ezpata, alchattu zuben Guizona lurratic, lotu zion bere colpia, ta eramen zuben sendatcera. Orañ gauza miragarriya: Yuantcen colpatzellia ura Elizaco Estaciuc eguittera, ta Elizan Santo Cristo baten adoratcera, ta unen oñatan bere ezpañac parattu zittubenian, ateritcen Santo Cristoc bere itziataric, bere bi besuac, ta besarca lotcen zayo Guizon ari, ta ala iduquitcen du dembora pusca batian, Elizan zauden guciyec arritcen direla, Guizona ura alchatu zen agradecittuba favoria artaz, ta guciyec eman zittiozten esquerrac Jangoicuari, zertic añ honra andiya eguitten dion, aren amoriyua gatic barcatcen dionari. Guizona ura vicittu zen andic aitziaña egemplo andi bat ematten zubela, ta iltcen santubaren opinionian, ta pasattu zen eternidade bateco pagubaren<sup>70</sup> errecivitcera. Guc barcatcen badiogu gure Etsayei lograttuco dugu unec lograttu zuben sariya au bera.

#### 4. TESTUA

¿Ceiñ da zazpigarren peticiua? Libra gatzaitzu gaitzatic. ¿Cer escatcen diogu peticiua onetan? Jangoicuac libra gaitzala gaitz gucitic. Zembatt gaitz genero dire? Bida: Becatubarena, eta penarena. ¿Zeiñ da becatubaren gaitza? Gure Jangoicuaren ofensa guciya. ¿Zeiñ da penaren gaitza? Gure trabajubaren vicitza<sup>71</sup> guciyec: nola battire Eritasunac, pobreza, gosetia, izurriya, eta Guerrac; Gaitz otan zeñetaric escatcen diogu Jangoicuari libra gaitzala? Becatutic: Zeiñ batta, gaitz guciyetan den andiyana. Eta bertce vicitzaren penataric escatcen diogu libra gaitzala, baldiñ etaric libratcia conveni baldiñ bada gure Salvacioraco. Biño zubetaric anitzec pensatcen duzube bacarric becatu mortala dela gaitza, eta becatu venialac eztubela gaitzaren izena mereci. Arengatic bada gaur erran nai dizubet nola castigatcen tuben Jangoicuac becatu venialac, castiguba otaric entendi dezazuben becatu venialare gaitza dela, eta zubec<sup>72</sup> uste duzuben biño andiyagua. Justiciyac castigatcen dubenian norbat pena, edo castigu andiren batequiñ, eztugu erratten aren becatubac, edo gastacariyac tipiyac direla, baicic andiyac direla. Icusten dugunian bada, Jangoico Juez Justubac castigatcen tubela becatu venialac pena andiyaguiñ: naita ez erran biar dugu, eztirela tipiyac, guc pensatcen dugun bazala, baicic aguitz andiyac: zertic eztu Jangoicuac justiciya macur eguitten, eta

67. Hemen "Arralselderiño", baina hurrengo hitza "Arralsaldia" da.

68. E lehenbizi "zuten".

69. Horrela irakurtzen dugu: "zig-", baina agian "ziy-" (?) ere irakur liteke (?).

70. E "pagabaren".

71. Espero dena *vizitzaren* edo *vizitzaco trabaju* da.

72. E "zuben".

eztu becuric castigatcen mereci duben biño guego. Icusten bazenutte, Juez batec sentenciya ematten diola batti beguiyac ateri diotzattela, bertce bati urca dezatela, eta bertciari ontasun guciyec embarga diotzatela; erranen zanuquette orduban, equiñ becatubac tipiyac direla? Ez, baicic aguitz andiyac. Bada au guciya, ta orañic guego eguiñ du Jangoicuac [2] anitzequiñ, becatu venialac gatic. Aditzube: certic S<sup>n</sup>. Gera[r]doc cuidaduarequiñ beguirattu zion nescacha tipi eder bati, Jangoicuac vista quendu zion, becatu veniela aren castiguraco. Eliseo[z] burla eguiñ zuten berroquei ta bi muticuetaz, disponittu zuben Jangoicuac, bi artz<sup>73</sup> menditic<sup>74</sup> etorriric porraca zetzatela eben atzaparraquiñ: bada anitz autoreren erabera, etzuten muticua ec becatu veniel vicic eguiñ, zertic etzuten ezautzaric asqui. Becattu veniela zen, Hebreuac Desiertuan zaudenian; Guizon batec Besta egunian bere suco egurra eguittia, Alere Moisesec yaquinyu zubenian becatuba au, berila preso parattu zuben (ojala gaurco egunian, Gartcelan sartcen balute Besta egunatan lanian aritcen direnac, eguitten diren biño obequi guardattuco lireque Bestac) consultattu zion Guero Jangoicuari ya zer eguiñ biar zen, Best egunian lan pusca bat eguiñ zuben Guizon artaz, Jangoicuac errespondittu zion: Besta egunian lanian arittu den Guizona ori, Erriyac arrica dezala, alic eta arrica ill dadiyen artio; ta ala eguiñ zen; Bada Jangoicuac aguinyu bazuben, arrica il zadiyela Besta egunian egurtara yuan zen Guizon au, izanenda Erriya unetan ñior, Besta eguninan egurtara yuanen denic. Errotara biya eramenen<sup>75</sup> dubenic, edo ecarco dubenic. Belar, edo ogui sartcen arico denic ordu bat bicic ezpadare? Bada contu, ordu erdi batez Bestegunian trabajatcia castigatcen du Jangoicuac adittu duzuben castigu icara garriyarequiñ. Curiyosidadeco becatu veniela eguiñ zuben Loten Emaztiac guibelat beguiratciaz, icusteco, nola su eguitten zuben, eta erretcen zen Sodomaco Ciudadia, zeñetari libratu zuben ura Ainguirubac; bada vecatu veniela au castigatu zuben Jangoicuac, gatzaren<sup>76</sup> biyurtcen zubela emacomia ura, bertcien escarmenturaco. Adittu duzube Emacomiac, Elizan guibelat beguiratceco costumbria duzubenac, [3] icusteco nor sartcen, ta ateritcen den, edo Elizan solasian egotten zaretenac? Becatu veniela eguiñ zuten, S<sup>n</sup>. Pedro Damiano, ta bertce anitcen erabera, Anania, ta Safira unen Esposac, errattiaz S<sup>n</sup>. Pedrori, garestiyago saldu zuten gauza merquiago saldu zutela; bada guezur au castigattu zuben Jangoicuac, biyei viciya quentciarequiñ eta derrepente S<sup>n</sup>. Pedroren oñatan illac erortciarequiñ. Zuazte oraiñ tratantiac, ta gauza saltcelliac, guezurra errattera, unembertce gosta zatt, ala eztenian. Zuazte guezurra errattera, eztuzubela<sup>77</sup> unelaco gauza, Aidiac, edo Auzocuac escatcen dizubenian. Vanidadeco becatu veniela aguintcen<sup>78</sup> zuben Davidec, aguiñyu zionian Joab bere Capitan generalari conta zezala bere Erreinuco<sup>79</sup> Yende guciya, bada becatuba au etcen

73. E "artaz".

74. E "mendetic".

75. E "eramen", bukaerako *-en* falta dela.

76. Hitzzen bat falta da *gatzaren* ondotik, *estatuan* edo.

77. Bi zatitan dago hitz hau: *eztuzu bela*. Ik. 81. oharra.

78. E "eguintcen".

79. E "Erreineco".

gueldittu castigu izigarri bat gabe; certic Jangoicuac aserturic gaztigatu zion Gat Profetarequiñ, bere becatubaren castiguraco auta zezala iru gaitzataric batt, edo zazpi urteco gosetia bere Erreinu guciyan, edo iru illabateco guerra, edo iru egunaco pestia, edo izurriya: eta nola Davidec autatu zuben azquene-cua au, gaitzic tipiyana bezala, iru egunez il ziren irutan ogueita amar milla persona. Bada banidadeco becattu veniela au izandu baldiñ bazen motivua irutan oguei ta amar milla persona illtceco, nola eztugu erranen becattu veniela gaitz andiya dela?<sup>80</sup> Eta zubequiñ eguiñ ezpadu Jangoicuac unelaco castiguric, esquerrac eman biar tiozube: zertic becattu venielac eguiñ tuzuben aldiyaro, merecittu duzube viciya galtzia: Biño adittu tuzuben<sup>81</sup> castiguba oc, eztire deus Purgatoriyuan becattu benielac castigatcen diren penen aldian. Bi pena padecitcen tuzte Purgatoriyuan Arimac, munduba unetan baccattuzat<sup>82</sup> zaizquiyon becatubac gatic, bat da eziñ allegatuba Arima Jangoicuarequiñ unittuba egottera, eta artaz gozatcera, eta nola ezur [4] batt bere lecutic ateritcen denian, eta bere lecuban eziñ parattu denian, oñace andiya den: guisa berian, oñace andiya padecitcen<sup>83</sup> du Arimac, bere lecuttic, au da Jangoicuarenganic apartatuba dagonian. Bigarren pena da, Purgatoriyoco suba: suba au, diyo S<sup>n</sup>. Agustiñec andiyagua dela munduba unetaco su, ta trabaju guciyec biño, alaco moduban, ezen, diyo S<sup>n</sup>. Gregorioc infernuban gaistuac padecitcen duten suba, ta purgatoriyuan padecitcen dena, biyec batt direla; diferenciya unequinche, infernucuac erretcen dubela betico, eta Purgatoriyocuac ez, icusten bazenutte bada, Justiciyac paratcen dubela Guizon bat labe batian, Labia au sutan dagonian, çerranen zanuquette castiguba au, becattu tipiyac gatic dela? Eta iraun albalazaque Guizon unec ill gabe Labia artan, erretcen bida, edo iru egunez, ezquenuque erranen, tormentuba au pensa aldittequien andiyataric dela? Cer izanen da bada, munduba unetaco quisu labe guciyec biño guego erretcen duben Purgatoriyoco labiaren barrenian sartuba egottia bat, eta ez iru orduz, edo iru egunez, baicic illabatiac, urtiac, eta urtiac? S<sup>n</sup>. Vicente Ferrerrec escrivitcen du, izandu<sup>84</sup> zela revelaciua, nola Arima, bat egondu zen Purgatoriyuan urte batez; becatu veniela baten gatic. Eta erranen duzube orañic becattu tipiya dela, unen pena andiyarequiñ castigatcen dena? Su icaragarriya arc eracutsico du ongui, andiyac, edo tipiyac diren, guc oraiñ tipitzat daduzquigun becatu beniela oc; eta baldiñ fedia illa ezpaldiñ badaucagu, siñetsi biar dugu, eta iduqui biar tugu becatu venielac, comunqui uesteden biño andiyagozatt, daquigularic Jangoicuac castigattu tubela bere adisquedieca<sup>85</sup> [5] Purgatoriyoco pena icara garriya equiñ. Berez unen gogorqui castigatcen battu becattu venielac Jangoicuac delaric añ Justuba eztire guc uste dugun<sup>86</sup> biciñ tipiyac izanen, zertic castigubac biar du culporen erabera. Berez castigubac añ andiyac badire, nola biar dute tipiyac,

80. E galdera gakoa falta da.

81. Bi zatitan dago hitz hau: *tu zuben*. Ik. 77. oharra.

82. Lerro artean erantsia *-zat* bukaera.

83. E "padecittcen".

84. E errepikaturik *izandu* hitza.

85. Agian "adisquedieca*il-can*" edo izan liteke, hizki bat gehiago badago eta.

86. E "duzun".

unela castigatcen diren becatubac? Eta arrazoi izanenda guc despreciya detzagan, eta casoric eguiñ eztezagun otaz? Ez, nere Cristabac ezta ala biar, beldur iduquizozube ez bacarric becatu mortalei; baicic baita becatu venielei ere. Au encargatcen dizubet S<sup>o</sup>. Efrenece bere anayei, encargatcen zion itzaquiñ: Encargatcen zattuztet nere Anayac, guarda zitteztela ez bacarric becatu andiyataric, baicic tipiyac diruditten etaric, eta casic guciyec, despreciyatcen tuzten etaric; zertic Diabruac ezte despreciyatcen, baicic biltcen tu, zuben acusatceco Jangoicuar[en]<sup>87</sup> Tribunalian. Guarda zittezte bada otaric cuidado guciyarequiñ, tipiyac iduriña<sup>88</sup> gatic, goza dezazuben Cristorequiñ<sup>89</sup> betico gloriyaz.

## HIZTEGIA

### A

- ABIYATU (a.) 'zuzendu, mintzatu;hasi, ekin'. Moises *abiyatcen* zayo Jangoicuari 3,4; ezpatac aterita *abiyatu* ziren elcarren contra 3,6.
- ADISKEDE/ADISKIDE (i.) 'adiskide'. *adisquedien* 1,1,2; *adisquidiei* 2,1.
- ADISKEDEETASUN (i.) 'adiskidetasun'. *adisquedetasunian* 1,2.
- ADITTU(a.) 'entzun'. *adittu* 2,2.
- AGINTZA (i.) 'agindu, manu'. *aguintza* 3,4; nere *aguintzac* 3,2.
- AGINYU (a.) 'manatu'. *aguinyu* zionian 3,4; *aguiñyu* (sic -ñ-) 3,5.
- AGITZ (ad.) 'guztiz'. *aguitz* andiyac 4,1.
- AINGERU (i.) 'gotzon'. *Ainguerubat* 2,2.
- AITZIN (i.) 'aurre'. bere *aitzinian* 2,4; andic *aitziña* 3,6.
- ALDIZKA (ad.) 'txandaka'. *aldizca* cantatcen 2,4.
- AMEKA (d.) 'hamaika'. *ameca* milla 2,3.
- ANDI (adj.) 'handi'. *andi* bat 2,3.
- ANITZ (d.) 'asko'. *anitz* aldiz 3,1.
- ANTZI (a.) 'ahantzi'. *anztera* utzi detzazubela 3,2. Agian "anzi". Ik. KONZINZIYA eta MINZATTU.
- ARENGATIK (ad.) 'horregatik, hori dela-ta'. *arengatic* 1,1,2.
- ARIMA (i.) 'arima'. *Arima* 1,4.
- ARKITTU (a.) 'aurkitu'. elcar *arquittu* zuten 3,6.
- ARTZ (i.) 'ursus'. bi *artz* 4,2. Eskuidatzian "artaz" dago.
- ASASIYATU (a.) 'ase'. *asasiyatuac* 2,4.
- ASNASI ARTU (a.) 'arnasa hartu'. *asnasi ar* dezan 1,3; *asnasi ardezala* 1,3.
- ATERI (a.) 'atera'. *ateri* 2,2.
- AURRIDE (i.) 'senide'. Jesucristoren *aurridia* 1,4.
- AUZOKO (i.) 'barride'. Aidiac, eta *Auzocuac* 4,3.
- AZKENEKO (d.) 'hondar'. *Azqueneco* aldian 2,1.

87. Bi zatitan dago: *Jangoicu arefen*].

88. Espero dena "irudiya" edo da.

89. E "cristorequiñ", c- xehea.

## B

- BAIZIK (j.) 'sino, pero'. *baicic* baita penarenare 3,1. Ik. BIZIK.
- BALIYATU (a.) 'lagundu'. Jangoicua *baliya* daquidala 2,1.
- BATTA (i.) 'barren'. gure *battan* 1,2; eben *battatic* 2,2.
- BAZALA (j.) 'bezala'. *bazala* 1,1,2. Salbuespen gisa "bezala".
- BEGIRA JOAN (a.) 'inspeccionar'. *duazala beguira* pasatzeco, zuguiric baden, edo ezten 3,4.
- BEKATU (i.) 'pekatu'. *becatu* 4,2.
- BEREZ (j.) 'beraz'. *berez* pensazazu 3,4; *Berez* 3,5; etab.
- BERILA (ad.) 'brehala'. *berila* icusco duzube 1,3.
- BERTZE (d.) 'beste'. *bertce* yosteta 2,2.
- BI (i.) 'bihi, garau'. Errotara *biya* eramenen dubenic 4,2.
- BIYALDU (a.) 'bidali'. *biyalcen* 1,1,2.
- BIAR IZAN (a.) 'behar izan'. An egon *biar dute* gure Arimac 2,1.
- BIARRI (i.) 'belarri'. *biarriyac* 2,2.
- BIDA (d.) 'bi'. *bida*, edo iru egunez 4,4.
- BILDOTS (i.) 'arkume, axuri'. *bildotsac* 3,4.
- 1 BIÑO (j.) 'baina, sed'. *biño* 1,1,2.
- 2 BIÑO (j.) 'baino, quam'. perfectuago ... izayera guciya *biño* 1,2.
- BIZIK (j.) 'baizen, besterik'. Arto pusca bat *bicic* 1,4; ordu bat *bicic* ezpadare 4,2; *vicic* 2,4.
- BOTATU (a.) 'bota'. *botatuco* 1,4.
- BURASO (i.) 'guraso'. zuben *Burasua* 3,2.
- BUSTELDU (a.) 'usteldu'. *bustelduba* 1,3.

## D - E

- DEUS (io.) 'ezer'. *eztire deus* 4,3.
- EGURTARA YUAN (a.) 'egur eske joan'. Besta egunian *egurtara yuanen* denic 4,2.
- EMAKOME (i.) 'emakume'. Guizon, edo *Emacomia* 1,4; *Emacome* 3,5.
- ENFADATU (a.) 'aspertu, gogaitu'. *enfadatu* gabe 2,3.
- ENOIATU (a.) 'nekatu'. *enoyatu* gabe 2,3.
- ENPLEGU (i.) 'egiteko'. oficiua, eta *empleguba* 2,3.
- ENTENDIMENTU (i.) 'adimentu'. *Entendimentuba* 2,3.
- ERABERA (p.) 'arabera'. anitz autoreren *erabera* 4,2; bertce anitcen *erabera* 4,3.
- ERAKUTSI (a.) 'irakatsi'. *eracusten* 3,2.
- ERAMEN (a.) 'eraman'. *eramen* gaitzan 1,2.
- ERRAN (a.) 'esan'. *erran* nizuben 2,1.
- ESKARIYO (i.) 'eskari'. *escariyuan* 1,1,2.
- ESPIRITU SANTU (i.) 'Sanctus Spiritus'. *Espiritu Santubaren* Esposa 1,4.
- EZEN (j.) '(ita) ut'. alaco moduban, *ezen* 4,4; aimbertce gustu ..., *ezen* idurittu zatzayon 2,2.
- EZKERO (j.) 'ya que'. ya que ... eguiñ dezaquegun *ezquero* 1,1,2; Escatcen tio-gun *ezquero* 1,2.



G

- GAISTO (i.; adj.) 'gaizto'. *gaistuac* eztute 1,1,2; *gaistuago* 1,4.  
 GAÑIAN (p.) '-z'. Erreinuaren *gañian* 2,1.  
 GASTAKARI (i.) 'gaiztakeria'. *gastacariyac* 4,1.  
 GAZTIGATU (a.) 'mezutu'. *gaztigatu* zion ... auta zezala 4,3.  
 GEGO (ad.) 'gehiago'. Bertce guciyec biño *guego* 1,3.  
 GIBEL (i.) 'atze'. *guibelat* beguirateco 4,2.  
 GUZI (d.) 'guzti'. ontasun *guciyec* 2,1.

I - J

- IDEKI (a.) 'ireki, zabaldu'. *idequi* zube 'itzazue' ... beguiyac 1,4.  
 IDUKI (a.) 'eduki'. *iduquiziozube* 4,5.  
 IDURITTU (a.) 'iruditu, uste izan'. *idurittu* zatzayon S<sup>n</sup>. Pedrori 2,2; *idurittubagatic* 3,4.  
 ILLARGI (i.) 'ilargi'. *illarguiya*, iguzquiya, eta izarrac 1,4.  
 YOSTETA (i.) 'jostaldi, olgeta'. danza, eta bertce *yosteta* 2,2.  
 IRAUNGI (a.) 'itzali'. *iraungui* zen suba 3,5.  
 IRUTAN OGEI (d.) 'hirurogei'. *irutan ogeui* ta amavi 3,4; *irutan ogeui* ta amar milla 4,3.  
 ITXE (i.) 'etxe'. *ichia* 1,4.  
 IZAIERA (i.) 'izaera'. iguzquiyaren *izayera* 1,2.  
 JANGOIKO (i.) 'Jaungoiko'. *Jangoico* Juez Justubac 4,1.

K

- KAUSITTU (a.) 'aurkitu'. *causittuco* duzu 1,4.  
 KENDU (a.) 'edeki, gabetu'. Jangoicuac vista *quendu* zion 4,2.  
 KISULABE (i.) 'karobi'. *quisu Labe* guciyec 4,4.  
 KONZINZIYA (i.) 'barrunbe'. bere *concinciyaco* 1,3; *concinciyaren* 1,4.  
 KRISTAB (i.) 'kristau'. *Cristab* onen 1,1,2; *Cristab* batec 3,5; *Cristabac* 1,4.

L - M - N

- LIBRU (i.) 'liburu'. *libru* devotuac 1,2.  
 MADRIL (i.) 'Madrid'. *Madrillan* vicittu ziren 3,5.  
 MAESTRU (i.) 'maisu'. *Maestruba* 3,2.  
 MAGIA (i.) 'vagina'. sartu zuben *maguian* bere Ezpata 3,6. Agian *magi*, bukaerako -a gabe.  
 MEREZI IZAN (a.) 'merezitu'. eztubela gaitzaren izena *merezi* 4,1.  
 MEREZITTU (a.) 'merezitu izan, irabazi'. *merezittu* duzube viciya galtzia 4,3.  
 MINGAIN (i.) 'mihi'. *mingañac* 2,1.  
 MINZATTU (a.) 'hitz egin'. *minzattu* nai dizubec 1,2.  
 NIGAR (i.) 'negar'. *nigarraquiñ* 1,5.  
 NIOR/ÑIOR (io.) 'inor'. *niorc* 2,1; *ñior* 1,4.

## O - P

- OGI (i.) 'gari'. Belar, edo *ogui* sartcen arico denic 4,2.  
 ONDARRIAN (ad.) 'azkenik'. *Ondarrian* 1,3; *ondarrian* 3,2.  
 ORAI/-Ñ (ad.) 'orain'. *orai* 3,4; *oraiñ* 2,3; *orañic* 3.3. Behin *orai*.  
 ORDIKARI (i.) 'ordikeria'. *ordicariyaquiñ* 1,4.  
 ORTZEGUN (i.) 'ostegun'. *ortzegun* santu 3,6.  
 PAULO (i.) 'Paulus'. S<sup>n</sup>. *Pauloc* 1,1,2.  
 PODORE (i.) 'botere'. *podore*, ontasun 2,1.  
 PORRAKATU (a.) 'porrokatu, zatikatu'. *porraca* zetzatela eben atzaparraquiñ  
 4,2: 'laceraverunt' *Erregeak* IV.2.24.  
 PREDIKU (i.) 'predicación' (ez *sermoi*). eben *predicuba* eguinta (Apostoluek) 3,4.

## S - T - U - Z

- SANTU (i.; adj.) 'sandu'. *santu* guciyen 1,1,2; izen *santuba* 1,1,2.  
 SIÑAURRI (i.) 'txindurri'. *siñaurric* tipianaren viciya 1,2.  
 SIÑETSI (a.) 'sinestu'. nor *siñetsi* biardugu? ¿Zu edo Jangoicua? 3,3.  
 SORATU (adj.) 'zoratu'. *soratubac* 2,2.  
 TXIKATU (a.) 'txiki egin'. obra oc *chicatcen* tuzte ... gauza guciyec 1,2; *chicatcen*  
 du bere nobletasunian ... munduba au guciya 1,2.  
 HUME (i.) 'seme-alaba'. Jangoicuaren *hume* maitia 1,4.  
 URRIKIMENTU (i.) 'erruki, damu'. *urriqimentu* 1,3.  
 ZARRATU (a.) 'itxi'. *zarratu* ziren beguiyac 2,1.  
 ZERTIK (j.) 'zergatik, quia'. *zertic* ezta 3,1; *zertic* eguitten garen 3,1.  
 ZILLEGI IZAN (a.) 'haizu izan'. deseyatzia *zillegui* etzena 2,1.  
 ZUGI (i.) 'zubi'. *zuguiric* baden 3,4.

## ADIZKITEGIA

## B

- BAILU 'balu'. Erratten *bailu* bazala 1,3.  
 BALITTU 'balitu'. *balittu* 2,3.  
 BALIZ 'balitz'. Ojala ala *ezpaliz* 3,3; *baliz* 3,3.  
 BALUTE 'balituzte'. sartcen *balute* ... aritcen direnac 4,2.  
 BANU 'banu'. graciya izandu *ezpanu*, izanen nintcen 1,3.  
 BAZENUTTE 'bazenute'. Icusten *bazenutte* ...; erranen zanuquette 4,1.  
 BEKIGU 'bekigu'. etor *bequigu* 2,1.

## D

- DA 'da'. *da* 1,1,2; *batta* 'bait da' 1,2; *den* 1,4.  
 DADIYEN 'dadin'. andi *dadiyen* 1,2; alimenta *dadiyen* 1,2; mugui *dadi-*  
*yela* 1,3.  
 DAKIDAN 'dakidan'. baliya *daquidala* 2,1.  
 DAKIYON 'dakion'. falta *daquiyola* 1,3.  
 DATZAN 'ditzan'. billa *datzala* 1,3; *ezaudatzala* 1,3.

DAZAN 'dezan' aguindazala 3,2. Normalki "dezan".  
 DAZATEN/DEZATEN 'dezaten'. ezaudazaten 1,1,2; serbi *dezaten* 1,1,2.  
 DETZAGUN 'ditzagun'. utzi *detzagun* 3,3.  
 DETZAKE 'ditzake'. comprendi *detzaque* 2,1.  
 DETZAN 'ditzan'. erdis *detzan* 1,3; icus *detzala* 1,3; ar *detzala* 1,3.  
 DEZAGUN 'dezagun'. eguiñ eztezagun 4,5.  
 DEZAKET 'dezaket'. eziñ engana *dezaquedana* 3,2.  
 DEZAKETTE 'dezakete'. eziñ eguiñ *dezaquettela* 3,3.  
 DEZAN 'dezan'. ar *dezan* 1,3; icus *dezan* 1,3; arrica *dezala* 4,2.  
 DEZATZAN 'zaitzan'. matta *dezatzan* (hark zu) 3,5.  
 DEZAZUN 'dezazun'. ezteazula ... ofenditu 2,4; ezteazula guego luzatu 2,4.  
 DIDAZUBE 'didazue'. *badidazube* 1,2.  
 DIETZAGUN 'diezazkigun'. Barca *dietzagula* 3,1.  
 DIEZAZUBEN 'diezazuen'. ongui eguiñ *diezazubela* 3,2.  
 1 DIO 'dio'. emanen *dio* ... Arimari 2,3.  
 2 DIO 'die'. *dio* 3,4; *dion* 2,1.  
 1 DIOGU 'diogu'. Escatcen *diogu* 1,1,2.  
 2 DIOGU 'diegu'. *diogu* 3,1; 3,6.  
 DIOTZATTEN 'diezazkioten'. beguiyac ateri *diotzattela* 4,1; embarga *diotzatela* 4,1.  
 DIOZAN 'diezaion'. barca *diozala* 3,5.  
 DIOZEN 'diezaien'. barca *diozela* 3,5.  
 DIOZUBE 'diozue'. *diozuben* 1,5.  
 DIRE 'dira'. *dire* 1,2; *battire* 4,1.  
 DITTEKE 'daiteke'. erdis *ditteque* 2,4; esplica *dittequiela* 2,1.  
 DITTEZEN 'daitezen'. matta *dittezela* 'amentur' 3,2.  
 DITTEZKE 'daitezke'. eziñ conta *dittezquien* 2,3.  
 DIZUBET 'dizuet'. *dizubet* 1,2; *dizubedana* 3,2.  
 DU 'du'. *du* 1,1,2; *duben* 1,3.  
 DUT 'dut'. *dut* 1,3; *dudan* 2,1.  
 DUZUBE 'duzue'. *duzube* 1,3.

## G

GAITZAN 'gaitzan'. eramen *gaitzan* 1,2; libra *gaitzala* 4,1.  
 GARA 'gara'. *gara* 1,1,2; *garenian* 1,1,2.  
 GATTU 'gaitu'. *gattubena* 3,1.  
 GATTUZTE 'gaituzte'. *gattuzte* 3,4.  
 GATZAITZU 'gaitzazu'. Libra *gatzaitzu* 4,1.  
 GENUKE 'genuke'. *ezquenuque* erranen 4,4.

## L - N

LAZAKE 'lezake'. iraun *albalazaque* 4,4.  
 LIREKE 'lirateke'. guardattuco *lireque* 4,2.  
 NAIZ 'naiz'. *naiz*, *naizena* 1,3.  
 NAUZUBE 'nauzue'. *nauzube* 3,2.  
 NINTZEN 'nintzen'. izandu *nintcen* 1,3.

NITTEKE 'naiteke'. ezin engana *nittequiena* 3,2.  
 NIZUBEN 'nizuen'. *nizuben* 2,1.  
 NUBEN 'nuen'. *esnubenan* 1,3.

## T

TIYEGU 'dizkiegu'. *tiyegun* 3,1.  
 TIGUZTE 'dizkigute'. *tiguzten* 3,2.  
 TIO 'dizkie' (sic). biyaltcen *tiola* laguntzac 1, 1, 2.  
 1 TIOGU 'dizkiogu'. *tiogu* 2,1.  
 2 TIOGU 'dizkiegu'. *tiogu* 3,2.  
 TIOZTE 'dizkiote' *tioztela* 2,4.  
 TIOZUBE 'dizkiozue'. *tiozube* 4,3.  
 TIZUBE 'dizkizue'. *tizuben* 3,2.  
 TU 'ditu'. *tu* 1,1,2; *tuben* 1,2.  
 TUT 'ditu'. *tudana* 3,2.  
 TTUZUBE 'dituzue'. *battuzube* 'badituzue' 3,2; *tuzuben* 4,3.

## Z

ZADIYEN 'zedin'. aguinyu zionian ateri *zadiyela* 3,4; iraungui *zadiyela* 3,5.  
 1 ZAIO 'zaio'. Deitzen *zayo* 3,1.  
 2 ZAIO 'zaie'. *zayola* 2,1.  
 ZAITZU 'zaizu'. *bazaitzu* 3,3.  
 ZAIZKIYO 'zaizkie'. *zaizquiyon* 4,3.  
 ZANINDUZTEDEN 'zintuztedan'. ateri *zaninduztedena* 3,2.  
 ZANUBEN 'zenuen'. obe *zanubela* ez yayo izattera 1,4.  
 ZANUKETTE 'zenukete'. erranen *zanuquette* 4,1. Ik. BAZENUTTE.  
 ZARA 'zara'. *zara* 2,4; *zarella* 1,4.  
 ZARETE II 'zarete'. *zaretenac* 4,3.  
 ZATT II 'zait'. *zatt* 4,3.  
 ZATTUZTET 'zaituztet'. *zattuztet* 4,5; *zattuztedana* 3,2.  
 1 ZATZAION 'zitzaion'. *zatzayon* 2,2.  
 2 ZATZAION 'zitzaion'. *zatzayon* 3,4.  
 ZEN 'zen'. *zen* 2,1.  
 ZETZATEN 'zitzaten'. porraca *zetzatela* 4,2.  
 ZEZAN 'zezan'. conta *zezala* 4,3.  
 ZIDAZU 'iezadazu'. barca *zidazu* 3,6.  
 1 ZION 'zion'. *zion* 4,2.  
 2 ZION 'zien'. *zion* 3,4.  
 ZIOTEN 'zioten'. erran *zioten* (haiek hari) 3,4.  
 ZIOZAN 'ziezaion'. contu eguiñ *ziozala* 3,5.  
 1 ZIOZU 'iezaiozu'. Beguira *ziozu* 1,4.  
 2 ZIOZU 'iezaiezu'. Errai 'erran' *ziozu* tropa oriyei 3,4.  
 1 ZIOZUBE 'iezaiozue'. esca *ziozube* 1,4.  
 2 ZIOZUBE 'iezaiezue'. beldur iduquiziozube ... becattu mortalei 4,5.  
 ZIREN 'ziren'. *ziren* 2,1.  
 ZITTEKEN 'zitekeen'. eziñ deseya *zittequiela* 2,2.  
 ZITTEZEN 'zitezen'. *pasacittezen* 3,4.

ZITTEZTE 'zaitezte'. oroi *zittezte* 3,4.  
 ZITTEZTEN 'zaitezten'. causitzitteztela, 3,4.  
 1 ZITION 'zizkion'. eguiñ *zition* 2,3.  
 2 ZITTION 'zizkien'. *zittion* 1,3; *zitiyon* 2,4.  
 ZITTIOZTEN 'zizkien'. *zittiozten* 3,6.  
 ZITTUBEN 'zituen'. *zittuben* 1,3.  
 1 'ZU 'duzu'. naizu 'nahi duzu'. 1,4.  
 2 'ZU 'ezazu'. pensazu 3,4; obedecizu 3,5; mattazu 3,5.  
 1 'ZUBE 'ezazue'. icaszube 3,5; Aditzube 4,2.  
 2 'ZUBE 'itzazue'. idequi *zube* zuben ... beguiyac 1,4.  
 ZUBEN 'zuen'. *zuben* 1,3.

### *Adizki trinkoak*

DADUKA 'dauka'. *daducan* 1,1,2.  
 DADUZKI 'dauzka'. *daduzquiyenian* 2,3.  
 DADUZKIGU 'dauzkagu'. *daduzquigun* 4,4.  
 DAGO 'dago'. *tagonian* 4,4; *dago* 1,1.  
 DAKIGU 'dakigu'. *badaquigu* 1,2.  
 DAUDE 'daude'. *eztaude* 3,1.  
 DAUKAGU 'daukagu'. *badaucagu* 4,4.  
 DIYO 'dio, esaten du'. *diyo* 3,1; *diyon* bazala 1,1,1.  
 DI(Y)OZU 'diozu, esaten duzu'. *diozu* 3,3; *diyozun* 3,3.  
 DIOZUBE 'diozue, esaten duzue'. *diozube* 3,3.  
 DIRUDITTE 'dirudite'. *diruditten etaric* 4,5. Ik. IDURITTU *Hiztegia* atalean.  
 DUA 'doa'. *dua* 2,2.  
 DUAZ 'doaz'. *duazen* 3,3.  
 GAUDE 'gaude'. *bagaude* 1,1,2.  
 NAGO 'nago'. *nagona* 3,2.  
 ZAGON 'zegoen'. *zagonac* 3,6.  
 ZAUDE 'zaude'. *bazaude* 1,4.  
 ZAUDEN 'zeuden'. *zaudenian* 4,2.  
 ZIGUAKION 'zihoakion'. *ziguaquiola* 3,6. Ik. 69. oharra.  
 ZUAZ 'zoaz'. *zuaz* 3,3.  
 ZUAZTE 'zoazte'. *Zuazte* 3,4.

### LABURPENA

Argitaratzen ditugun lau testuok Juan Ramon de Lakoizketa Bertiz (1801-1858), Narbarten jaio eta Donamaria eta Erretzuko erretore izan zenak eduki zituen, baina ez da horien egilea. Berak idatzi zituenak bezala, hauek ere XIX. mendekoak dira eta beren egilea Bidasoa beheko herriren batean jaioa izan liteke, darabilen euskarak hango zenbait gertakari erakusten dituelarik. Bestalde, Lakoizketaren garaikidea da sermoilaria.

## RESUMEN

Los cuatro textos que damos a conocer pertenecieron a Juan Ramón de Lakoizketa Bertiz (1801-1858), nacido en Narbarte y párroco de Donamaria y Erratzu, pero no es el autor de los mismos. Como los que él escribió, son del s. XIX y su autor pudo haber nacido en algún lugar del bajo Bidasoa, pues el euskara que emplea muestra algunos fenómenos de esa región. Por otra parte, creemos que es contemporáneo de Lakoizketa.

## RÉSUMÉ

Les quatre textes que nous présentons, appartiennent à Juan Ramón de Lakoizketa Bertiz (1801-1858) né à Narbarte et curé de Donamaria et Erratzu, mais il n'en est pas l'auteur. Comme ceux qu'il a lui-même écrits, ils datent du XIX<sup>e</sup> siècle. Il est possible que leur auteur soit né dans un endroit situé dans la région de la Basse Bidassoa, étant donné que l'Euskara montre quelques phénomènes de cette région. D'autre part, nous croyons qu'il est contemporain de Lakoizketa.

## SUMMARY

The four texts you can see in this work belonged to Juan Ramón de Lakoizketa Bertiz (1801-1858), born in the High-Navarrese village of Narbarte and parish priest in Donamaria and Erratzu, High-Navarrese villages too, but he is not their author. Like the ones he wrote, these also belong to the 19th century and the writer might had been born somewhere in the low Bidasoa as they show the Navarrese Basque spoken in the Low Bidasoa region, being their unknown author Lakoizketa's contemporary.



